

PERU

Gobernatzeko behar duen gehiengoa lortu duela iragarri du Toledok

Erredakzioa | DONOSTIA

Gobernatzeko behar duen gehiengoa lortu zuela adierazi zuen atzo Alejandro Toledok, igandean Perun egin ziren hauteskunde presidentzialetako garaileak. Datorren uztailaren 28an hartuko du kargua Toledok, eta dagoeneko 61 kongresukideren babes eskuratu zuela iragarri zuen atzo.

Gobernagarritasunerako alderdiekin itunak sinatzearen aldeko apustua berretsi zuen presidente hautatuak atzo. «Nik erakitzailea izan nahi dut, eta hitzarmenen bidez bateratzaile lana egin», nabarmendu zuen Toledok.

Moralaren Aldeko Fronte Independentearen eta Herri Ekintza alderdiaren babes lortu zuela adierazi zuen presidente hautatuak. Hala ere, Lourdes Flores Bata-sun Nazionala aliantzako hautagai ohiak bere Gobernuan parte hartzea nahi zuela esan zuen, baina oraindik ez zuela harekin akordioa lortu.

Fujimori gogoan

Alberto Fujimori Peruko presidente ohiak 1993an indarrean jarritako Konstituzioa aldatzeko asmoa agertu du Toledok, «dik-tadura baten neurria egin baitzen lege hori». Hala, egungo ganbera bakarrekongresuaren orde-z Senatu ere eratuko duela iragarri du.

Era berean, Japoniak Fujimori Perura estraditatzeko ahal zuen guztia egingo zuela agindu zuen Toledok atzo, «presidentte ohiak Peruko justiziaren aurrean erantzun behar baitu egindakoagatik». Horrez gain, duela gutxi giza eskubideen aurkako ekintzak ikertzeko sortutako Egiaren Batzordearen ebazpenak betearazteko lan egingo zuela agindu zuen.

Ekonomiari dagokionez, kargua hartu baino lehen atzerriko inbertsioak erakartzeko «kanpaina azkarra» egingo duela esan du Toledok. Hala, hainbat herrialdetara bidaiatzen duela datoen egunetan.



JAIME RAZURI / EPA

FUJIMORIREN AGINTEAREN AMAIERA. 2000ko azaroan iragarri zuen Alberto Fujimori, Japoniatik, presidente kargua utziko zuela, bere aurkako ustelkeria akusazioak zirela eta. Argazkian, Polizia, Gobernuaren jauregia zaintzen, Liman, *bazen garaia* dioen pintada baten ondoan.

Eguzkiaren inperiotik heldutako laino beltza

FUJIMORIREN AGINTALDIA. Hamar urteko agintekeriaren ostean, hiltorian dagoen sistema politiko, juridiko eta ekonomikoa utzi dio Peruko presidente ohiak Alejandro Toledori oinordetza gisa

Usoa Otaegi | DONOSTIA

Hamar urtetan oso trebe eta autokrata finenaren moduan Peru gobernatu zuen Alberto Fujimori heroia da batzuentzat, eta diktadore hutsa gehienentzat. Azken batean, itzalez josita dago jatorri japoniarreko *txinatarraren* ibilbide politikoa, eta lan itzela egin beharko du orain Alejandro Toledo Peruko presidente hautatuak Fujimorik hiltorian utzitako sistema demokratiko, juridiko eta ekonomikoa berregituratzeko.

Fujimori injineru agronomo izatetik telebistan analista politiko lanetan aritzera igaro zen. Handik politikara salto egin eta, guztiak harrituz, 1990eko uztailan presidente hautatu zuten perutarrek. Kaos ekonomikoa, ustelkeria, talde gerrillarien borroka eta narkotrafikoa nagusi ziren Fujimorik oinordetzan hartu zuen Perun.

Legebiltzarraren babes ez zuela ikusita, bere politika autokratikoa martxan jarri zuen 1992an, Armadaren babesarekin. *Autokolpea* eman eta Kongresua desegin, Konstituzioa in-

dargabetu eta bere aurkako epaileak kargugabetu zituen, eta botere absolutua eskuratu.

Vladimiro Montesinos buru zuen SIN Inteligentzia Zerbitzua Peruko indar politiko hegemonikoa bihurtu zen. Oposizioaren, gerrillaren eta, azken batean, Fujimoriren boterea kolokan jar zezakeen edozein mehatxuren aurka egiteko tresna zapaltzailea zen SIN.

SINen eta Armadaren eskutik, Fujimorik giza eskubideak maiz bortxatu zituen boterean egon zen hamar urteetan. Gerrillaren eta bere aurkarien kontra egiteko, Colina Taldea erakunde armatua sortu eta nekazariei armak eman zizkien «autodefentsa» egin zezaten.

Lehen garaipenak

Krisi ekonomikoari aurre egiteko, merkatu librearen aldeko politika eta pribatizazioak bultzatu zituen Fujimorik. Hala, ekonomia berpiztea lortu zuen denbora gutxian. Beste garaipen handia, Abimail Guzman Sendero Luminoso talde gerrillari burua atxilotzea izan zen. Nazioartearen eta, batez ere, Washingtonen begirunea lortu-

AUTOKOLPEA

Kongresua desegin, Konstituzioa indargabetu eta epaile ugari kargutik kendu zituen Fujimorik, eta botere absolutua lortu

ZERBITZU SEKRETUAK

Montesinos buru zutela, Fujimoriren aurkarien eta talde gerrillarien aurkako tresna zapaltzaile nagusia bihurtu ziren

ta eta berak berregituratutako Kongresuaren eta sistema juridikoaren babes zuela, 1993an beste Konstituzio bat eratu zuen Fujimorik, bere neurria. Hala, garaipen garbia lortu zuen 1995eko bozetan.

Bigarren agintaldian, Fujimorik hainbat arazori aurre egin behar izan zien. Perutarrek haserre zeuden, ekonomiak atzera egin baitzuen eta agintekeria

gero eta nabariagoa baitzen. 1996an Tupac Amaru gerrillak Japoniak Liman zuen enbaxada okupatu eta 72 pertsona gatibu gisa hartu zituen. Lau hilabete geroago, Fujimorik operazio militar polemikoa martxan jarri zuen bahituak askatzeko, eta enbaxadan zeuden 14 gerrillariak hil zituen Poliziak, haiek amore eman ostean.

Giro nahasi horretan hasi zen Fujimori 2000ko bozak prestatzen. Montesinosen oposizioko kideak eta hedabide herrikoietako buruak erosi zituen, kanpaina presidentearen alde bidera zezaten. *Autokolpearen* ostean Auzitegi Konstituzionala desegin zuenez, lege antikonstituzionalak indarrean jarri zituen Fujimorik hainbat urtetan, Kongresuaren babesarekin. Hortaz baliatu zen hiru agintalditan jarraian boterean izatea eragozten zion berak eratu zuen Konstituzioko atalari aurka egin eta bozetan parte hartzeko.

Hala, Fujimorik 2000ko bozak irabazi zituen, iruzurra egiteaz akusatuta, eta oposizioko buruak hori zela-eta bigarren itzulian parte hartzeari uko egin ostean. Egun haren ondare ilunari aurre egin beharko dion Alejandro Toledo presidente hautatua zen oposizioaren gidari hura.

Joan den urteko azaroan erori zen Fujimoriren erregimena, Montesinos oposizioko diputatu bat erosten erakusten zuen bideoa kaleratu zenean. Azaroaren 19an Japoniara ihes egin eta handik gutxira kargua utzi zuen, gainera zetorkion helegite oldea iragarrita. Tokion, eroso eta salbu ikusiko du orain Fujimorik Toledo, berak utzitako anabasaren aurka lehiatzen.